Bilbao

JARDUNALDIAK

BILBAO MODA

2026ko azaroak 10 eta 12

Eman zure izena hemen

BILBAO MODA

Modaren industria eraldaketa-prozesu betean dago, aldaketa teknologikoek, ingurumenekoek, sozialek eta ekonomikoek sustatuta. Testuinguru horretan, sektorearen orainaldia eta etorkizuna definitzen ari diren arloak profesionalei, saltokiei, ikasleei eta herritarrei hurbiltzeko programazioa planteatzen du Bilbao Modak.

Bilbao Modaren programazioak modu orekatuan jorratzen ditu sektorearen gaur egungo erronkak: jasangarritasuna, eraldaketa digitala, merkataritza indartzea, talentua garatzea, eragileen arteko lankidetza eta herritarrekiko harremana. Horrek guztiak Bilborako modaren ekosistema berritzaileagoa, lehiakorragoa eta erakargarriagoa finkatzen laguntzen du.

JASANGARRITASUNA ETA BERRIKUNTZA

Jasangarritasuna elementu bereizgarria izatetik moda-enpresentzako eskakizun estrategikoa bihurtzera igaro da. Industriaren ingurumeneko inpaktuak sortzen duen kezka geroz eta handiagoa eta araudi-aldaketak eta kontsumitzaileen eskari berriak direla eta, zirkularitatearen irizpideak, materialen berrikuntza eta ekoizpenaren eta kontsumoaren eredu berriak integratu behar ditu sektoreak. Gainera, talentu espezializatua erakartzeko eta prestatzeko gaitasuna enpresen etorkizuneko lehiakortasuna bermatzeko faktore garrantzitsua bihurtu da.

ADIMEN ARTIFIZIALA ETA DIGITALIZAZIOA

Teknologia berriak modaren balio-kate osoa ari dira eraldatzen, produktuaren diseinutik eta garapenetik hasi eta komertzializazio eta komunikazioraino. Adimen artifizialak aukerak eskaintzen ditu prozesuak optimizatzeko, efizientzia hobetzeko eta bezeroekin erlazionatzeko modu berriak sortzeko. Teknologia horren potentziala eta aplikazio praktikoak ulertzea funtsezkoa da diseinatzaileak eta saltokiak ingurune geroz eta digitalizatuagora egokitzeko.

MODA, DISEINUA ETA HIRI-GARAPENA

Hiriek geroz eta lehia handiagoa dute elkarren artean talentua, bisitariak eta inbertsioa erakartzeko. Testuinguru horretan, moda eta diseinua hiri-posizionamendurako eta lurraldearen identitatea eraikitzeko tresnak dira. Nazioarteko esperientziak ezagutzeak Bilboko ekosistema sortzailea indartzeko praktikak identifikatzeko eta sektoreak hiriko garapen ekonomikoari eta kulturalari egiten dion ekarpena sustatzeko aukera ematen du.

KOMUNIKAZIO DIGITALA ETA SARE SOZIALAK

Sare sozialak komunikatzeko eta saltzeko kanal nagusietako bat bihurtu dira modaren arloko markentzat eta saltokientzat. Komunitatea sortzeko, balioak transmititzeko eta nabarmentzeko duten gaitasuna funtsezko abantaila lehiakorra bihurtu da, batez ere merkatu oso lehiakor honen barruan nabarmendu nahi duten saltoki txikien eta diseinatzaile independenteen kasuan.

KONPETENTZIA KOMERTZIALAK ETA BEZEROAREN ESPERIENTZIA

Modaren merkatuaren barruan bereizteko garrantzitsuena dagoeneko ez da produktua bakarrik. Bezeroarentzako arreta, salmenta-gaitasunak, pertsonen arteko komunikazioa eta emozioen kudeaketa faktore erabakigarriak dira erosketa-esperientzia asebetegarriak sortzeko eta bezeroak fidelizatzeko. Konpetentzia horiek indartzeak ekarpen zuzena egiten dio tokiko merkataritzaren lehiakortasunari.

TALENTUA ETA ENPLEGAGARRITASUNA

Profesionalen belaunaldi berriak integratzea ezinbestekoa da sektorearen berrikuntza eta jasangarritasuna bermatzeko. Ikasleek eta gazteek esperientzia errealak ezagutu ahal izateko espazioak sortzea lagungarria da prestakuntzaren eta lan-merkatuaren arteko distantzia murrizteko, eta talentu sortzailea lurraldean atxikitzen laguntzen du.

EKOSISTEMA ETA LANKIDETZA SEKTORIALA

Diseinatzaileen, saltokien, erakundeen, prestakuntza-zentroen eta beste eragile batzuen arteko lankidetza da sektore sortzailea indartzen gehien laguntzen duen faktoreetako bat. Elkartzeko eta networkingerako espazioek proiektu partekatuak garatzen, ezagutzaren zirkulazioa bermatzen eta negozioarentzako aukera berriak sortzen laguntzen du.

BESTE SORKUNTZA-ARLO BATZUEKIKO KONEXIOA

Diziplinen arteko interakziotik sortzen da normalean berrikuntza. Modaren, gastronomiaren, artearen, diseinuaren eta lurraldearen arteko konexioak herritarrentzako esperientzia berriak sortzen, lankidetza-aukerak zabaltzen eta modak industria kultural eta sortzaile gisa duen rola indartzen laguntzen du.

KONTSUMO KONTZIENTEA ETA HERRITARTASUNA

Kontsumitzaileek rol geroz eta aktiboagoa dute sektorearen eraldaketan. Kontsumo arduratsuak, jantzien iraunkortasunak, armairuaren kudeaketak edo modarekiko harreman kontzienteagoa eraikitzeak interes sozial geroz eta handiagoa piztu dute, eta eredu jasangarriagoak garatzen laguntzen dute.

MODA ADIERAZPEN KULTURAL GISA

Dimentsio ekonomikoa edukitzeaz gain, pertsonen eguneroko bizitzaren parte den fenomeno kulturala da moda. Sektorea herritarrei hurbiltzeko, sektoreari ikusgarritasuna emateko eta modaren industriaren eta gizartearen artean konexio handiagoa sortzeko aukera ematen du eduki dibulgatiboak eta formatu irisgarriak integratzeak.

PROGRAMAZIOA

JARDUNALDI PROFESIONALA
ASTEARTEA, AZAROAK 10

Ordutegia: 11:15-17:15
Tokia: Zabalgune eraikina. Zabaltza plaza, 11, Bilbo.
Aurkezlea: Adela Úcar

BILBAO MODA

11:00 / 11:15 — **Parte-hartzaileei harrera**

11:15 / 11:30 — **Irekiera**

Kontxi Claver, Bilboko Udaleko Ekonomiaren Garapen, Merkataritza, Turismo eta Enplegu zinegotzia

11:30 / 12:00 — **Ikasle izatetik profesional bihurtzera: diseinu arloko ibilbide arrakastatsuak**

Ainara Urkijo eta Gaizka Albizu (Alumni IED Kunsthal)

Hainbat ibilbide profesional erakutsiko dituzte IED Kunsthaleko bi graduatuk eta prestakuntza-erakundeen, enpresen eta talentua sustatzeko eragileen arteko lankidetzak diseinatzaileen belaunaldi berriak garatzeko garaian duen garrantzia nabarmenduko dute.

12:00 / 13:00 — **Jasangarritasuna, berrikuntza eta talentua**

Simone Cipriani Nazio Batuen Ethical Fashion Initiative ekimenaren sortzailearen, Eduardo Loretoren (Basque Biodesign Center) eta Victor Sernaren (Loreak Mendian) mahai-ingurua. Moderatzailea: Adele Orcajada.

Mahai-inguruan diseinuaren sisteman izandako aldaketak, berrikuntzaren gaur egungo esanahia, zirkularitatearen ezarpena eta sektoreak eskatzen duen talentuaren prestakuntza jorratuko dira. Simone Ciprianik eta jasangarritasunean eta diseinu zirkularrean oinarritutako lurraldeko bi ekimenek gogoeta egingo dute jasangarritasunak modaren sektorean duen garrantziaren gainean.

Ordutegia: 11:15-17:15
Tokia: Zabalgune eraikina. Zabaltza plaza, 11, Bilbo.
Aurkezlea: Adela Úcar

BILBAO MODA

13:00 / 14:00 **Merkataritza eta diseinua. Horiek bultzatzeko hiriko estrategiak.**

Diseinuaren, merkataritzaren, sorkuntzaren eta hiri-garapenaren arteko harremana nola lantzen duten erakutsiko dute bi hirik.

13:00 – 13:30. Kirsi Juva, Finnish Design Inforen zuzendaria.

Ekosistema sortzailearen ikusgarritasunarekin, komunikazioarekin eta eragileen arteko konexioarekin dago lotuta Kirsi Jurvaren esperientzia eta Helsinkin diseinuaren sektorea sustatzeko eta tokiko merkataritzan erostea bultzatzeko ezarri diren ekimenak aurkeztuko ditu.

13:30 – 14:00. Mireia Escobar, Disseny Hub Barcelonaren zuzendaria (DHub).

Bartzelonan arkitektura, moda eta hiriaren diseinua dinamizatzeko ezarritako ekimenen kudeaketan eta zuzendaritzan duen esperientzia partekatuko du Mireia Escobarrek.

14:00 / 14:45 **LUNTXA**

14:45 / 16:15 **Moda eta AA: tresnez harago**

Raquel Perez, Onverseden CEOa; Irene Blanco, Overseden disienatzaile nagusia. Modaren teknologiaren Espainiako startupa (fashion tech eta climate tech)

AA erabiltzeak diseinatzaileei zein merkataritzako saltokiei eman diezazkiekeen aukerak ezagutuko dira hitzaldi-masterclass honetan ikuspegi praktiko batetik, aplikazioak eta sektorearentzako tresna erabilgarriak erakutsiz.

Ordutegia: 11:15-17:15
Tokia: Zabalgune eraikina. Zabaltza plaza, 11, Bilbo.
Aurkezlea: Adela Úcar

BILBAO MODA

16:15 / 16:45 **Modu positiboan saltzea**

Márcos Álvarez, Retail Consultant eta Coach exekutiboa.

Salmenta positiboa, adimen emozionala edo gertutasunaren eta profesionaltasunaren arteko oreka jorratuko dira, eta saltokien egunerokoan aplika daitezkeen tresnak eta gogoetak partekatuko dira.

16:45 / 17:15 **Nortasuna duten saltokiak: kanal digitalen bidez, zure komunitatearekin konektatzearen boterea**

Qukoa.

Kanal digitalen bitartez komunitatea eta identitate propioa sortzea lortu duen saltoki txiki baten esperientzia erreala.

HERRITARRENTZAKO JARDUNALDIA
OSTEGUNA, AZAROAK 12

Ordutegia: 17:30-21:00
Tokia: Zabalgune eraikina. Zabaltza plaza, 11, Bilbo.
Aurkezlea: Adela Úcar

BILBAO MODA

17:30 / 18:15 **Ikusgai dagoen nortasuna eta moda kontzientea**

María Lasa.

Irudian eta moda jasangarrian aditua da, eta arropa hobeto ulertzeko, konbinatzen ikasteko, kalitatea hautemateko eta erosteko erabakiak irizpide handiagoarekin hartzeko tresnak eskainiko dizkigu.

18:15 / 19:15 **Janzten eta dastatzen diren paisaiak.**

BISUBI – Bizkaiko sukaldariek osatutako irabazi-asmorik gabeko fundazioa da, gastronomiak duen gaitasun eraldatzailea frogatzeko eta jasangarritasun soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa sustatzeko
Alberto Etxebarrieta. Sin Patrón
Naia Matia. Maiuki
Imanol Carretero. MaldeOjo Optika Atelier

Ikusizko esperientzia kolaboratibo honek modaren diseinuaren arloko hiru profesional eta hiru sukaldari elkartuko ditu espazio berean. Paisaia batean inspiratutako bi sorkuntza artistiko garatuko dituzte aldi berean, jendaurrean eta binaka. Bikote bakoitzak lurraldearekin eta Bilboko identitatearekin lotutako gai bat landuko du.

19:15 / 20:00 **¡Vaya percha, Bilbo!**

Ana Goitiaren monologoa.

20:00 / 21:00 **ITXIERA-KOKTELA**

ESPAZIOAREN GIROA

FASHION GRAD SHOW IED KUNSTHAL

Graduatuek egindako 6-8 proiektuko erakusketa bat antolatuko du IEDk. Proiektu bakoitzak look bat erakutsiko du maniki edo busto baten gainean, sketchbook /memoria batekin batera.

Proiektu horiek Zabalgune Eraikinean egongo dira, Bilbao Modaren jardunaldiak egin bitartean espazioa girotzeko.



Aurkezlea

Adela Úcar

Kazetaria eta aurkezlea da, eta 25 urtetik gorako ibilbide profesionala du telebistan eta komunikazioan. Kate nazionaletan eta nazioartekoetan aritu da bere ibilbidean zehar, hala nola Cuatron, ETBn, RTVEn eta Discovery Channelen, eta hainbat formatu egin ditu: aktualitatea, entretenimendua, erreportajeak eta dokumentalak, besteak beste. Cuatroko 21 días programaren eta RTVEko Reduce tu huella saioko aurkezlea izan da, bere lanik esanguratsuenen artean. Halaber, ikus-entzunezko edukiak sortu eta zuzendu ditu, eta esperientzia handia du kongresuak, enpresa-topaketak, ekitaldi kulturalak eta ekitaldi instituzionalak aurkezten eta moderatzen. Ikus Entzunezko Komunikazioan lizentziatua da eta zinemaren eta telebistaren arloko graduondokoa egin zuen Melbourneko Unibertsitatean.



Programako parte-hartzaileak

Kirsi Juva

Finnish Design Infoko, Finlandiako diseinuari buruzko informazio-zentro nazionaleko, zuzendari exekutiboa da Kirsi Juva. Finlandiako diseinuaren sektoreko erakunde liderrek sortu zuten zentro hori. Finlandiako diseinua herrialdean bertan zein nazioartean ikusarazteko eta bere inpaktua indartzeko egiten du lan Helsinkitik, diseinatzaileak, enpresak, komunikabideak eta sektore publikoko erakundeak konektatuz. Diseinuak aukera berriak, soluzio hobeak eta eguneroko bizitza hobea sor ditzakeela, eta hirien eta herrialdeen identitatea eta nazioarteko erakargarritasuna definitzen lagun dezakeela uste du.



Programako parte-hartzaileak

Mireia Escobar

Zientzia Politikoetan eta Artearen Historian lizentziatua da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB), eta esperientzia handia du administrazio publikoan; nazioarteko lankidetzako proiektuen koordinatzailea eta alkatetzaren aholkularia izan da Bartzelonako Udalean, komunikazioko eta alkatetzako zuzendaria Molins de Reiko Udalean, eta pertsonentzako zerbitzuen zuzendaria Molins de Reiko Udalean. Diseinuaren sustapen-saileko zuzendaria Barcelona Activan. Gaur egun, Disseny Hub Barcelonaren zuzendari nagusia eta Bartzelonako Udaleko Kultura Institutuaren Sormen Industrien zuzendaria da.



Programako parte-hartzaileak

Simone Cipriani

Jasangarritasunaren, gobernantzaren eta berrikuntzaren arloko nazioarteko ahotsik ezagunenetako bat da modaren industriaren barruan. Nazioarteko organismoetan ibilbide luzea egin ostean, ikerkuntzaren, prestakuntzaren eta sektorearentzako aholkularitza estrategikoaren artean aritzen da gaur egun. Milano Fashion Instituteko Deana da, Sciences Po-n irakasle elkartua eta Parisko École des Ponts Business Schooleko ReTech Centerreko Senior Research Fellowa. Modaren industriaren jasangarritasunarekin eta eraldaketarekin lotutako ekimenak bultzatu ditu bere ibilbidean zehar, nazioarteko erakundeetan, lantaldeetan eta sektoreko erronka sozialekin, ingurumenekoekin eta teknologikoekin parte hartuz.



Programako parte-hartzaileak

Eduardo Loreto (Basque BioDesign Center)

Eduardo Loreto biodiseinatzailea, materialen ikerlaria eta Berrikuntza Zuzendaria da Basque Biodesign Centerren. Biomaterialetan, biofabrikazioan eta jasangarritasunean dago espezializatuta, eta ikerketa-proiektuen eta modaren industriarentzako, automobilgintzarako eta diseinurako material berrien garapenaren liderra da, zientzia, diseinua eta industria lotzen dituzten soluzio zirkularrak bultzatuz. Halaber, EKHŌ Studio zuzentzen du, eta materialen berrikuntza-proiektuak eta industria sortzaileentzako eta arte eszenikoentzako sorkuntzak koordinatzen ditu, biomaterialen aplikazio berriak aztertuz jantzigintzan, eszenografian eta diseinu esperimentalean. ikuspegi estrategikoa, ikerketa aplikatua eta zuzendaritza sortzailea konbinatzen ditu bere lanean, jasangarritasuneko erronkak berrikuntzarako aukera berri bihurtzeko.



Programako parte-hartzaileak

Adele Orcajada

Materialen ikerlaria, jasangarritasuneko espezialista eta MaterialDrivenen sortzaileetako bat da. Espainian, Erresuma Batuan eta Estatu Batuetan aritzen den estudioa eta materioteka da MaterialDriven. Gaur egun, IED Kunsthal Bilbaoko Moda Jasangarriaren Diseinuaren eta Zirkularitatearen Masterra koordinatzen du. Biomaterialetan, diseinu birsortzailean eta jasangarritasunaren arloko hezkuntzan zentratzen du bere ikerketa. Modarako eta diseinu zirkularrerako materialen berrikuntzaren arloko ahots nazionalik ezagunenetako bat da.



Programako parte-hartzaileak

Víctor Serna

Loreak Mendian markaren, euskal moda garaikidearen erreferentziazko marketako baten, sortzaileetako bat da. 1995ean sortu zenetik, kultur identitate indartsuagatik eta diseinua, sormena eta lurraldea konektatzeko duen gaitasunarengatik ezagun egin den markaren eraikuntzan eta eboluzioan hartu du parte, eta moda independentearen panoramaren barruan erreferente bihurtzen lagundu du.
Marka garatzeko esperientzia zabala, enpresa-estrategia eta modarekin lotutako proiektuen kudeaketa uztartzen ditu sektorean hiru hamarkadako ibilbide profesionala egin ondoren.



Programako parte-hartzaileak

Raquel Perez

20 urtetik gorako esperientzia du marketinean, berrikuntzan eta eraldaketa digitalean. Modan aplikatutako 3D teknologian eta adimen artifizialean espezializatutako ONVERSED estudio teknologiko-sortzailearen CEOa eta sortzailea da, eta Best Fashion Tech aitortza jasotzeaz gain, sariak jaso ditu berrikuntzarengatik eta jasangarritasunarengatik. Malagako Unibertsitatean, Deustukoan eta hainbat negozio-eskolatan jaso du prestakuntza, eta ikuspegi argia du: teknologia ez da tresna soil bat, industria osoak eraldatzeko motorra baizik. Markak, erabiltzaileak eta ekonomia digitala modu eraginkorrean eta neurgarrian konektatzen dituzten soluzioak eskalatzean datza bere ikuspegia. Talent Woman Digital saria jaso du Raquelek eta teknologiaren gaineko bere ikuspegi estrategikoa konbinatzen du negozio-eredu berriak sustatzeko, zein modaren industriaren barruko sorkuntza-, ekoizpen- eta komunikazio-prozesuak eraldatzeko.



Programako parte-hartzaileak

Irene Blanco

Madrilgo Modaren Diseinuaren Goi Eskolan formatutako diseinatzailea da, eta Unibertsitate Politeknikora atxikita dago. El Corte Inglésen moduko enpresekin aritu da lanean bere ibilbide profesionalean zehar. Gaur egun, ONVERSEDen diseinuaren arloko arduraduna da, eta sormena, diseinu digitala eta berrikuntza teknologikoa uztartzen ditu sorkuntza-prozesuak eta marken komunikazioa eraldatzeko. Prestakuntza espezializatuarekin uztartzen du bere jarduera profesionala, irakaslea baita modari aplikatutako adimen artifizialari buruzko unibertsitate-programetan.



Programako parte-hartzaileak

Marcos Álvarez

Erreferentea da retailaren arloan. Ekonomialaria, idazlea, hizlaria eta coach exekutiboa da, eta 25 urtetik gorako ibilbidean zehar askotariko marka nazionalekin zein nazioartekoekin aritu da lankidetzan, hedapen-proiektuetan, eraldaketa kulturalerako proiektuetan eta jardun komertziala hobetzekoetan parte hartuz. Retailari, salmentei eta lidergoari buruzko hainbat liburu idatzi ditu, eta aholkulari lanaz gain, zuzendariak eta lantalde komertzialak prestatzen ditu enpresetan eta negozio-eskoletan. Bere ikuspegiak hauek guztiak biltzen ditu: pentsamendu sistematikoa, bezeroaren esperientzia, talentuaren garapena eta hobeto kudeatzeak pertsonek beren onena eman ahal izateko baldintzak sortzea esan nahi duela aintzat hartzea.



Programako parte-hartzaileak

María Lasa

Moda kontzientearen dibulgatzailea, irudi pertsonalean espezialista eta Identidad Visible programaren sortzailea da. Bulkadek bultzatuta erosteari utzi nahi dioten, modaren arauak zalantzan jarri nahi dituzten eta diren horrekin benetan bat egiten duen janzteko modua bilatu nahi duten emakumeei laguntzen die.

20 urte baino gehiago daramatza ekintzaile. Tatuajeen munduan hasi zen lanean, eta diziplina horretatik hasi zen estetikaren, identitatearen eta pertsonek jendaurrean agertzeko duten moduaren arteko harremana aztertzen. Gaur egun, Arteen arloko prestakuntzarekin eta Vogue College of Fashionen Modari eta Estilismoei buruzko prestakuntzarekin uztartzen du esperientzia hori.

Dibulgazioan eta irudi pertsonalarentzako akonpainamenduan aritzeaz gain, bere lehenengo moda-bilduma sortu du, filosofia berarekin betiere: irizpide propioa garatzea arropaz gozatzeko eta erabaki hobeak hartzeko. Sare sozialen, bere proiektuen eta bitartekaritzen bitartez, emakumeei laguntzen die benetan zer behar duten hautematen, kalitatea baloratzen eta armairuari ekarpenen bat egingo dioten jantziak aukeratzen, lehenengo bulkadatik harago.

Estilo zuzenarekin, hurbilarekin eta apur bat inkonformistarekin, zergatik jarraitzen ditugun ere ez dakigun modaren arauak desmuntatzen ditu Mariak eta zalantzan jartzen du eguneratuta, erakargarri edo seguru sentitzeko etengabe erosteko beharra. Emakume bakoitzari bere identitate propioa eta agerikoa eraikitzen, irizpide handiagoarekin janzten eta modaz modu sinpleagoan eta kontzienteagoan gozatzen laguntzea da bere proposamena.



Programako parte-hartzaileak

Ana Goitia

Kazetaria, aurkezlea, telebistako zuzendaria, umoregilea eta modan espezializatutako eduki-sortzailea da. 22 urteko ibilbidea du ETBn, kameren aurrean zein atzean, eta modari buruzko Euskal Herriko blogginaren aitzindarietako bat izan zen. Modarekin, irudi-aholkularitzarekin eta industria dibertsoagoaren eta inklusiboagoaren aldeko aldarrikapenarekin dago lotuta bere ibilbidea. KATANA bere lehen bakarrizketaren bira arrakastatsua amaitu berri du, eta umoregile gisa duen jarduna ere finkatu du. Moldaerraza, inkonformista eta dibertsitatearekin konprometitua da, eta adierazpenerako, identitaterako eta askatasunerako tresna gisa ikusten du moda.



Programako parte-hartzaileak

Gaizka Albizu Sesumaga

Bilboko IED Kunsthalen graduatutako moda-diseinatzailea da Gaizka Albizu Sesumaga. Identitatearekin, gorputzarekin eta iruditegien eraikuntzarekin lotutako gaiak lantzen ditu bere lanean, modaren bitartez. Gradu amaierako bere lana, Olympia, Identity ekimenerako hautatu zuten eta Pitti Uomo 2024n aurkeztu zen. Gainera, finalista izan zen With Love Halston Fundazioak sustatutako nazioarteko With Love Halston Fashion Scholarship programan.

Graduatu ostean, BIAAFen beka bat jaso zuen Central Saint Martinsen prestakuntza-egonaldi bat egiteko. Hainbat estudiotan eta nazioarteko proiektutan aritu da bere ibilbidea aberasten, eta moda garaikidearen barruan sorkuntza, ikerketa eta esperimentazioa ulertzeko askotariko moduetara hurbildu da.



Programako parte-hartzaileak

Ainara Urquijo

Bilboko IED Kunsthlaen graduatutako moda-diseinatzailea da Ainara Urquijo. Modaren, bolumenaren eta ikusizko kontakizunaren arteko harremana aztertzen du bere lanak, eta sormen-prozesu tradizionalak zein diseinuan aplikatutako tresna digitalak konbinatzen ditu. Gaur egun, SKFKeko lantaldearen parte da. Euskal marka hori jasangarritasunarekin eta ekoizpen arduratsuarekin dago konprometituta.
Prestakuntza-garaian, Parisko ESMODEn ere ikasi zuen eta nazioarteko modaren testuingurua hurbiletik ezagutzeko aukera izan zuen, desfileekin eta aurkezpenekin lotutako hainbat esperientziaren bitartez. Ondoren, BIAAFen beka bat jaso zuen Central Saint Martinsen prestakuntza-egonaldi bat egiteko.



Programako parte-hartzaileak

Ekaitz Apraiz Olaeta

IOKUko txef exekutiboa eta gastronomia-arduraduna da, eta tokiko produktuarekin eta lurraldearekin lotutako proposamen gastronomikoak garatzen ditu. BISUBI Bizkaiko Sukaldarien Fundazioko Aholkularitza Batzordeko presidentea da.



Programako parte-hartzaileak

Pepe Redondo Ortega

Aretxondoko sukaldari burua eta euskal gastronomiako erreferentea da. Tradizioa, sormena eta kalitatezko produktuak uztartzen ditu sukaldean.



Programako parte-hartzaileak

Oihane García

Leioako Ostalaritza Eskolan formatu zen eta Bizkaiko gastronomiako talentu berrietako bat da. Ikuspegi freskoa eta sukaldearekiko eta tokiko produktuarekiko bokazioa ditu.



Programako parte-hartzaileak

Sin Patróneko Alberto Etxeberria

Sin Patróneko Alberto Etxeberriak dio “jostun enpirikoa (proba-errorean oinarritutako autodidakta)” dela. «Guztiok berdin janzteko adoktrinatuta dagoen» gizarteari aurre egiteko sortu zuen proiektua, eta kalean bertan egindako jantzi libreen aldeko apustua egin zuen. Uko egiten die industria komertzialaren inposizioei, eta joskintza adierazpide propioa eta eraldatzailea dela defendatzen du.



Programako parte-hartzaileak

MaldeOjo Optika Atelierreko Imanol Carretero


MaldeOjo Optika Atelierreko Imanol Carreterok dio bere espazioa “Bilboko betaurreko alternatiborik berezienen optika” dela. Betaurrekoen zahartze programatuaren aurka egiten du, 0km-ko armazoi artisauak fabrikatuz. Pertsona bakoitzak bere pertsonalitatera egokitzen den eta berezi sentiarazten duen diseinua aurkitzea da bere helburua, eta patxadaz diseinatzeko, bezeroari entzuteko eta neurrira egiteko apustua egiten du. Estilorik pertsonalena nabarmendu nahi duen hiriko publikoari, kosmopolitari eta inkonformistari bideratutako espazioa defendatzen du.



Programako parte-hartzaileak

Maiukiko Naia Matía

Haurrentzako moda «arropa klasikoaren, hau da, arrosaren eta urdinaren, eta oso modernoaren artean bereizten zela» ikusirik sortu zuen bere marka Maiukiko Naia Matíak. Estereotipo horiek iraultzeko sortu zen bere proiektua eta haurrentzako jantzi denboragabeak eta unisexak egiten ditu. Halaber, marka eboluzionatuz joan da eta emakumeentzako arropa-linea bat eta osagarri minimalistak eta oversizeak ere sortu ditu. Bilbo Zaharrean dago bere espazioa, eta bertan diseinatzen eta sortzen ditu bere sorkuntzak. Kalera begira du tailerra eta denda funtzioa ere badu espazioak. Ekoizpen etikoaren eta slow fashionaren filosofia jarraitzen du eta eskarien arabera ekoizten du. Hartara, eskuz egindako piezen sorkuntza-prozesuaren funtsezko pieza bihurtzen da bezeroa.


Bilbao